

AZKOITIAKO "TXORIKO"

1

Urte askoren barrena
bera prailetan zaharrena.
Aspaldi baten Oruen dogu,
Andres da bere izena;
Larogei eta hamalau urte
eta ez ei da azkena.

2

Gizaseme atsegina,
danon aitita egina.
Buruz argi ta bihotzez zabal,
adarra joteko fina;
bere partetik opa deutsuet
danoi zahartzaro bardina.

3

Zenbat neke astrapala,
langile zintzo apala.
Omenaldira etorri jaku
nagusi Probintziala,
bera dogu bai Probintziala,
baina Andres Jenerala.

4

Hainbeste urtez mutiko,
ez da sarri ikusiko.
Ondo dakigu mundu honetan
inor ez dala betiko;
baina ehunera heldu baietz hau,
Azkoitiako "Txoriko".

5

Karrerarik egin gabe
hizkuntza askoren jabe...
Amak euskera, Frankok erdera
eta moruak arabe;
prantsez pixka bat ta gaillegua
dakiz xuabe-xuabe.

6

Andresen borondatea
praile on bat izatea.
Aterik ate ibili eta
prailei jaten ematea;
danen artean zabalik dauka
zeruetako atea.

A. Martzel

